

## "Sexu-heziketa: kalitatezko harremanen alde" ikastaroaren balorazioa

### Gazteen Euskal Behatokiak urrian formakuntza planeko beste ikastaro bat antolatu du

'Sexu-heziketa: kalitatezko harremanen alde' ikastaroa antolatu du Gazteen Euskal Behatokiak urrian zehar. Formazio honen helburu nagusia da, hezitzaileek berauen lan esparruan aritzen diren haur eta gazteen sexualitateari arreta eskaintzea, sexualitateak pertsonen garapen integralean duen garrantziaz kontzientzia hartuz, ulermen eta lantze jarreretatik aritzeko baliabideak jorratuz.


Ikastaroa **Maidier García de Vicuña Quintanak** eman du, Sexologian aditua (InCiSex) eta Psikologian lizentziaduna. **EMAIZE** Sexologia Zentroan langilea.

**12 lagunek** partehartu dute ikastaroan, honako lanbide-profilak dituztenak:

- Gehienak, % 75, gazteen arloko langileak (gazte informazioa, udalak, foru-aldundiak, gazteen elkarteak, gizartean eta hezkuntzan esku hartzen duten taldeak eta beste erakunde batzuk) izan dira.
- Beste % 17 hezkuntza arautuari lotutako lagunak izan dira.
- Azkenik, % 8ak bestelako soslai profesionalak zituzten.

Ikastaroak 15 orduko iraupena izan du, hiru egunetan banatua eta ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (0tik 10era bitarteko eskalan):

### Ikastaroaren balorazioa (batez bestekoa, 0tik 10era doan eskalan)



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, ikastaroan parte hartu dutenen artean egindako balorazio inkestetako emaitzak oinarri hartuta*